

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri antolamenduko Plan Orokorraren egitura aldaketari, Europa jauregian -Gasteiz hiribidea, 85- ekipamendu generikoaren kalifikazioa duen azalera handitzeko

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2016ko azaroaren 4an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketari, Europa jauregian –Gasteiz hiribidea, 85- ekipamendu generiko kalifikazioa handitzeari dagokionez, eta horrenbestez aldatzea VI. a eta b liburukietan kalifikazio globalari, sistema orokorrei eta sestrei eta kalifikazio xehatuari dagozkien plano-sortetan jasotako dokumentazio grafikoa, guztia ere Gasteizko udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzi eta erabaki honi erantsitako proposamenarekin bat.

2. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan. Horrez gain, Plangintzarako Aholku Batzordeari nahitaezko txostena eman dezan eskatzea, informazio publikorako aldiari. Halaber, udalerriko administrazio-batzarrei hasierako onespeneren berri emango zaie, ezagutu eta txostena egin dezaten.

3. Aldaketa hau prestatu, izapidetu eta onesteko prozeduran jarraitu beharreko herritarren partaidetza programa onestea.

4. Behin betiko onetsi bitartean –edonola ere, gehienez ere bi urtez– bertan behera uztea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa honen eremuan onartze-, baimen- eta lizentzia-emate oro.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25–, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 10ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE